

Euskadin euskaraz

El Mundo del País Vasco, 1993-03-26.

Euskal herrian euskaraz beti hitz egin izan da; beti, esan nahi da, orain 6.000 bat urte hemen bertan Herri batek sortu zuenez gero. Horregatik da Euskal Herria. Erromatarrek Mediterraneoaren itsas-bazterak bereganatu zituzten hartan, orain bi mila urte, Iberian ez zen gaztelerarik egiten, noski, eta euskara, bai. Gero, erromatarren latina aberatsa, kultoa. Hispania eta Galia zehar igo zen kulturalki, bere hizkuntzak gaineratuaz, Euskal Herrian ezik. Esan daiteke, beraz, gure inguruko herriak latinez hitzegiten hasteko bere hizkuntzak galtzen joan ziren denbora berean, euskaldunek herri bezala euskaraz hitz egiten jarraitu zutela. Hizkuntzaganako bere atxikimendu hau da, beraz, euskaldunon bekatu nagusia. Hemendik datoz arazo guztiak.

Geurea utzi eta latina hartu izan bagenu, orduan kultura handiagokoak izango ginen, baina ez ginen euskaldunak izango eta ez zen Euskal herriaren problemarik sortuko. Historian zehar izan ditugunak aipatzeko lekurik ez dut zutabetxo honetan, baina nahikoa da nire lekukotasuneko kate-mailaren berri ematea: Neuk, amonarik ezagutzeko zoririk izan ez banuen ere, bi aitonak ezagutu nituen: bata nafarra, eta bestea zeraindarra. Biak zurginak, gainera. Ama hernaniarrak eta aita andoaindarrak berengandik euskara jaso eta ni eta nire anai Josebari horixe, beren euskalduntasuna, utzi ziguten heredentzia bakarra. Gerra zitala eta exilio sakabanatua tarteko, euskararen aurkako borroka gaizto eta lotsagarriaren lekuko izan gara.

Euskara, txirotu ala aberastu egin da nire esperientzian?

Hazi egin da, eta aberastu, Aranek eta Unamunok bi muturretatik sinetsi ezingo luketen moduan. Baina hemen gaude gurutzean. Geu zanpatu gaituzten erdarak ere indartzen ari dira geure kontura, beti geure ahuleziaren kontura gizendu izan diren bezala, eta euskaldunon eginbeharrak ez du orain, aurreratzen hasi garenean, erori behar; hemen gabiltza aurrez-aurre borroka bizian etxean, kalean, ikastolan, eskolan, unibertsitatean, eta hemen, honetan, geratzeak bakarrik ez liguke geure ondotik datozen belaunaldiak euskaldunak izateko biderik utziko.

Hemen eta gaur irabazi behar dugu, edo hiltzera sententziatua utziko dugu euskara. Zuk, euskaldunak, zure hitza sendoki esan.